



2017KO URRIAREN 26KO BILKURAKO AKTA

Organoa: Orendaingo Udaleko Plenoa
Tokia: Orendaingo udaleko Areto Nagusia
Deialdia: Lehenengoa
Hasiera data: 19:00etan
Amaiera data: 21:10etan

Bertaratuak:

Gorka Egia Arregi. Alkatea
Miguel Angel Arsuaga Azurmendi. Zinegotzia
Txaro Arrona Erdozia. Zinegotzia
Ibon Gonzalez Galarraga. Zinegotzia
Eli Garaialde Garmendia. Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi Etxeberria

GAI ZERRENDA

- 1.-2017ko uztailaren 20ko bilkurako akta onartzea hala balegokio.
- 2.-Alkateak eman dituen ebazpenen berri ematea, 2017-28tik 31 bitarte.
- 3.-2018 urterako zerga eta tasen egoera aztertu eta dagokiona erabaki.
- 4.-2018 urterako udalak aurreikusitako diru laguntzen araudia onartzea.
- 5.-Herriko jaien likidazioa aurkeztea.
- 6.-Natur txokoa Orendainen onartu eta bere finantziazioaren inguruan dagokiona erabaki.
- 7.-Eudelen proposamena, 2017 urterako udal langileei %1eko igoera aplikatzea, hala badagokio.
- 8.- Galderak eta eskaerak.

1.- 2017EKO UZTAILAREN 20KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO.

Alkateak aginduta, 2017-07-20ko bilkurako akta mahairatu dira onarpena emateko. Bertaratuaren aldetik inolako zuzenketa edo aldaketa proposamenik agertu ez denez dagoen bezala ontzat eman da.

2.-ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2017-28TIK 31 BITARTE.

Alkateak eman dituen ebazpenen berri eman da:

2017-28 ebazpena:

SEGREGAZIO BAIMENA
ESKATZAILEAK: ALOÑA ETA IÑAKI ZURIARRAIN EIZAGUIRRE



JABETZA:

Aloña eta Iñaki Zuriarrain Eizaguirre jaun andreak, ondorengo partzelaren jabetza dute:

“El terreno helechal llamado OKOZBERRO GARAIA y GOIKO LUBERRIA y URKOLA MENDIA, sito en el término de Urkolamendi; confina: Norte, terrenos de Juan Bautista Zunzunegui y Miguel Ignacio Nazabal, hoy terrenos del caserío Zaiz azpi (Sr. Irazusta); Sur, terrenos de Don Juan Bautista Zunzunegi, hoy terrenos del caserío Okoberroko (Sr Irazusta); Este, helechales de Don Jose Jerónimo Leturiondo y el de Don Juan Bautista Etxabeguren, hoy terrenos de caserío Larreta txikia (Sr. Eguia) y del caserío Olaso (Sr Irazusta) y camino carretil; y Oeste, resto de terreno Goiko luberría y Urkola mendia; comprende once mil treinta y cinco metros cuadrados. Le cruza un camino. Se corresponde con las parcelas 39 y 41 del polígono 3, parcela 111 del polígono 1 y parte de la parcela 9 del polígono 4.”

INSKRIZIOA:

Jabetzaren inskizioa, Tolosako Jabetza erregistroan egina dago 1512 tomoan, 9 liburuan, 73 folioan 16/N finka zenbakia eta 29.inskizioa.

SEGREGAZIOA:

16/N zenbakia duen finkatik, goian aipatzen den, “El terreno helechal llamado OKOZBERRO GARAIA y GOIKO LUBERRIA y URKOLA MENDIA, sito en el término de Urkolamendi; confina: Norte, terrenos de Juan Bautista Zunzunegui y Miguel Ignacio Nazabal, hoy terrenos del caserío Zaiz azpi (Sr. Irazusta); Sur, terrenos de Don Juan Bautista Zunzunegi, hoy terrenos del caserío Okoberroko (Sr Irazusta); Este, helechales de Don Jose Jerónimo Leturiondo y el de Don Juan Bautista Etxabeguren, hoy terrenos de caserío Larreta txikia (Sr. Eguia) y del caserío Olaso (Sr Irazusta) y camino carretil; y Oeste, resto de terreno Goiko luberría y Urkola mendia; comprende once mil treinta y cinco metros cuadrados. Le cruza un camino .Se corresponde con las parcelas 39 y 41 del polígono 3, parcela 111 del polígono 1 y parte de la parcela 9 del polígono 4” segregatu nahi dira hurrengo ondorioetarako:

- 1.-Jabetza osotasunean, IÑAKI ZURIARRAIN EIZAGUIRRE jaunak izateko
- 2.- Eta bertan eraiki behar duen bizitzari agrupatua geratzeko.

EBAZTEN DUT:

1.- 16/N zenbakia duen finkatik, “El terreno helechal llamado OKOZBERRO GARAIA y GOIKO LUBERRIA y URKOLA MENDIA, sito en el término de Urkolamendi; confina: Norte, terrenos de Juan Bautista Zunzunegui y Miguel Ignacio Nazabal , hoy terrenos del caserío Zaiz azpi (Sr. Irazusta); Sur, terrenos de Don Juan Bautista Zunzunegi, hoy terrenos del caserío Okoberroko (Sr Irazusta); Este, helechales de Don Jose Jerónimo Leturiondo y el de Don Juan Bautista Etxabeguren , hoy terrenos de caserío Larreta txikia (Sr. Eguia) y del caserío Olaso (Sr Irazusta) y camino carretil; y Oeste, resto de terreno Goiko luberría y Urkola mendia ; comprende once mil treinta y cinco metros cuadrados. Le cruza un camino .Se corresponde con las parcelas 39 y 41 del polígono 3, parcela 111 del polígono 1 y parte de la parcela 9 del polígono 4”

SEGREGATZEKO BAIMENA ONARTZEA.



2.-Segregatzen den partzela hau exekutatu behar den bizitzarekin agrupatzea, eta banaezina izatea.

3.- Erabakiaren berri hurrengo Osoko Bilkurari ematea.

2017-29 ebazpena:

ESKATZAILEAK: ALOÑA ETA JON ZURIARRAIN EIZAGIRRE ETA AITZIBER GOICOECHEA

JABETZA ETA INSKRIBAPENA

Ikusirik, eskatzaileak Larrazpide echeburua eta Urcola berri izeneko partzelen jabeak direla.

Ikusirik, eskatzaileak, aipatu partzela hauek, Tolosako Maria Larraitz Franco Galarraga notaritzaren aurrean, 2003ko urtarrilaren 31ean, 198 protokolo zenbakiarekin eskuratu zituztela, beraien aita den Juan Maria Zuriarrain Eizaguirre Jon eta Aloña seme alabei egindako donazioaren ondorioz.

Ikusirik, Jon Zuriarrain Eizagirre jaunak, ondasunaren lauren bat Aitziber Goicoechea Aguirreurreta andreari donatu zion, Tolosako Maria Valentina Montero Vilar Notarioaren aurrean, 2004eko martxoaren 10ean, 271 zenbakia duen protokoloan.

Ikusirik, ondasun hauek Tolosako Jabetza erregistroan inskribatuak daudela, 1512 tomoan, 9. liburuan, 75ea 76 folioetan, 69 finka eta 15 eta 16. inskribapenak .

Ikusirik partzelaren deskribapena ondorengoa dela:

“**Larrazpide -echeburua** confina por Este, con terreno de la casería Larrea auzcoa; por Sur , con el de la casería Zain azpicoa y por Norte ,con el de la casería Larreta auzcoa; contiene cincuenta y cuatro áreas treinta y nueve centiáreas.

Y el terreno helechal llamado **Urcola berri**, confina por este, con terreno de la casería Larreta auzcoa; por Sur con el de Urcola azpia; por Oeste, con los de las caserías Luganga – chiquia y Urcola aundia y por Norte, con camino carretil; contiene setenta áreas y veinte centiáreas”.

SEGREGAZIOA

Eskatzaileak segregatu nahi dituen partzelen deskribapena ondorengoa da:

“**Larrazpide -echeburua** confina por Este, con terreno de la casería Larrea auzcoa; por Sur, con el de la casería Zain azpicoa y por Norte, con el de la casería Larreta auzcoa; contiene cincuenta y cuatro áreas treinta y nueve centiáreas.

Y el terreno helechal llamado **Urcola berri**, confina por este, con terreno de la casería Larreta auzcoa ; por Sur con el de Urcola azpia ;por Oeste, con los de las caserías Luganga –



chiquia y Urcola aundia y por Norte, con camino carretil; contiene setenta áreas y veinte centiáreas”

Partzela hauek ,Orendaingo katastroan, 4 poligonoko 288 lurzatia eta 3 lurzatia dira hain zuzen ere.

Eta partzela hauek segregatzen dira, ondoren, Larraspi S.C jabetzara eskualdatzeko eta beste lursailekin agrupatzeko.

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

EBAZTEN DUT:

BAT :Ondoren dekrabatzen diren partzelak segregatzeko baimena onartzea:

“**Larrazpide -echeburua** confina por Este, con terreno de la casería Larrea auzcoa; por Sur, con el de la casería Zain azpicoa y por Norte, con el de la casería Larreta auzcoa; contiene cincuenta y cuatro áreas treinta y nueve centiáreas.

Y el terreno helechal llamado **Urcola berri**, confina por este, con terreno de la casería Larreta auzcoa; por Sur con el de Urcola azpia ;por Oeste, con los de las caserías Luganga – chiquia y Urcola aundia y por Norte, con camino carretil; contiene setenta áreas y veinte centiáreas”

BI.- Segregatzen diren partzela hauek Larraspi S.C jabetzan dituen beste partzelekin agrupatzea eta bat egitea.

HIRU .-Erabakiaren berri eskatzaileari ematea.

LAU: Hurrengo Osoko Bilkuran erabakiaren berri ematea.

2017-30 ebazpena :

Gaia: Larreta hauzkoa baserrian berrikuntza lanetarako baimena

Ikusirik, Juan Maria Garmendia Irastorza jaunak, Larreta hauzkoa baserrian ondorengo lanak burutzeko baimena eskatu duela:

.-Margoketa lanak, sarrerako atea aldatu, ikuluko zorua berdindu eta atea aldatu.



Ikusirik, egin nahi den lanaren aurrekontua ere aurkeztu duela eta guztira 6.340 euroak dela .

Ikusirik, burutu behar den lana obra txikia dela.

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

EBAZTEN DUT:

BAT.- Larreta hauzkoa baserrian egin behar diren lanak burutzeko baimena onartzea

BI.-Udal Agintarauen arabera, eraikuntza eta obra zerga kontzeptoan, aurkeztutako aurrekontuaren %1 a udalari ordaintzea. Hau da, 63,40 € hain zuzen ere.

HIRU.- Erabakiaren berri eskatzaileari ematea.

LAU.- Hurrengo Osoko Bilkuran erabakiaren berri ematea.

2017-31 ebazpena :

**ESKATZAILEA: Jesus Ayestaran eta Mari Karmen
Gaia: Txolarteko portxea exekutatzeko baimena**

Ikusirik, Txolarte txabolaren jabeak, txabolari portxea egin nahi diotela. Portxearen ezaugarriak, 11 metro luze eta 6,90 metro luze L itxurarekin eta alde batetan 2,40 metro zabalera eta bestean 3 metroko zabalera duela, eta irekia izango dela.

Ikusirik, udalak, Zaindik igotzen den herri bidea, eta Aldundiako errepidera erantzen den puntuan ikusmena irabaztea nahi dela .Eta horretarako, Txolarteko lursaila ukitu eta ireki beharra dela. Txolarteko jabetzako lursaila, hiruki irudia du, 4,10 metro oinean eta 2,65 metro altuera.

Kontutan hartuz, indarrean daduden arau subsidiarioetan, 73 artikuluan ondorengo arautzen duela:

Gutxieneko partzela: 2500 m²

Eraikuntza baldintzak: txabola bat eraikitzea baimentzen da, tresnak gordetze ondorioetarako. Aldi berean, animalientzako estalpean egitea baimentzen da, estalpe irekia bada alboetataik.

Txabolaren gehinezko azalera: 8 m² tresnak gordetzeko eta 100 m² etako estalpeak animalientzako.

Lizentziaren baldintzak: Eraikuntza baimenak beti ere prekarioan emango dira.



Kontutan hartuaz, jabetzak puntu honetan azaldu duen borondatea, udalaren nahia betetzeko, hau da, bidearen zabalera exekutatzeko eskubidea udalari ematea, ez titularitatea.

Kontutan hartuaz, udalak bere aldetik borondatea eskertzeko, gutxieneko partzelara neurria iristen ez bada ere, (katastroan 2073 m2 ditu), eta lehen egindako txabolaren eranskina izango denez.

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

EBAZTEN DUT:

BAT.-Txolarteko jabeei, estalpea egiteko baimena ematea, prekario izaeran.

BI.-Erabakiaren berri eskatzaileari ematea.

HIRU.- Hurrengo Osoko Bilkuran erabakiaren berri ematea.

Mahaikideek, erabakien berri jakin eta ontzat eman dute.

3.-2018 URTERAKO ZERGA ETA TASEN EGOERA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.

2018 urterako indarrean izango diren zerga eta tasen inguruko txostenaren ale bana eskuratu izan zaie zinegotziei, dagokiona erabaki ahal izateko.

ZERGAK

IBILGAILUEN ZERGA

HOBARIAK

11/1989 Arau Foralaren 5. artikulua eta martxoaren 19ko 4/2003 Foru arauak zerga honen inguruan arautzen duenaren arabera, zerga honetan, udalei eskumena ematen dien hobariak aplikatu ahal izateko.

Arauak onartzen dituen hobari kasuak hauek dira:

- .-Kuotaren %75 arteko hobaria ibilgailuak erabiltzen duen konbustiblearen arabera.
- .-Kuotaren %75 arteko hobaria, ibilgailuaren motorraren ezaugarriak direla eta beronek ingurunean duen eraginaren arabera . Kasu hauetan, motorra elektrikoa balitz, laguntza kuotaren %95 arte iritsi daiteke.
- .-Kuotaren %100 arte, ibilgailu historikoa den kasuetan. Fabrikazio egunetik kontatuta 25 urteko aintzinasuna duen ibilgailuetarako.
- .-Kuotaren %50 arte, familia ugarien titulua duten ibilgailu batentzat



KUOTAK

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Gutxi.	Kuota (1)	Gehien.	Kuota(3)	Egungo k.(1,23)
a) Turismoak					
9 zaldi fiskaletik beherakoak	18,39		55,17		22,80
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	36,78		110,25		45,60
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	61,30		183,90		76,01
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	85,82		257,46		106,41
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	110,34		331,02		136,82
20 zaldi fiskaletik gorakoak	134,86		404,58		167,22
b) Autobusak.					
21 plaza baino gutxiagokoak	83,30		249,90		103,29
21etik 50 plazara bitartekoak	118,64		355,92		147,11
50 plaza baino gehiagokoak	148,30		444,90		183,89
c) Kamioiak.					
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	42,28		126,84		52,42
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	83,30		249,90		103,29
2.999tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	118,64		355,92		147,11
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	148,30		444,90		183,89
d) Traktoreak.					
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	17,67		53,01		21,91
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	27,77		83,31		34,43
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	83,30		249,90		103,29
e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak					
1.000 baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	17,67		53,01		21,91
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	27,77		83,31		34,43
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	83,30		249,90		103,29
f) Bestelako ibilgailuak					
Zikomotoreak	4,51		13,53		5,59
125 cc-ra bitarteko motozikletak	4,51		13,53		5,59
125 cc-tik 250 cc-ra bitarteko motozikletak	7,72		23,16		9,57
250 cc-tik 500 cc-ra bitarteko motozikletak	15,45		46,35		19,15
500 cc-tik 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak	30,90		92,70		38,31
1.000 cc-tik gorako motozikletak	61,79		185,37		75,61

HOBARIAK ESKATZEKO EGUTEGIA:

- .-Urtarrilaren 7tik hasita eta 30 arteko epea izango da.
- .-Udalak, martxoaren amaierarako eskaeraren inguruko ebazpena emango du.
- .-Udalak apirilako Osoko Bilkuran trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga errolda onartuko du.
- .-Udalak, maiatzaren 1ean, zerga ordaintzeko borondatezko epeari hasera eman dio eta ekainaren amaieran amaituko da.

HOBARIAK ESKATZEKO PROZEDURA:



Ondorengo dokumentuak aurkeztu behar dira:

- .-Eskaera orria
- .-Ibilgailuaren fitxa kopia.

GAUR EGUN EZ DA HOBARIRIK APLIKATZEN .

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

BAT.-Kuota K.I.P aren arabera igotzea 2018 urterako, hau da gutxiengoaren %1,252

	Gutxiengo kuota	2018 urterako kuota
a) Turismoak		
9 zaldi fiskaletik beherakoak	18,39	23,02
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	36,78	46,05
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	61,30	76,75
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	85,82	107,45
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	110,34	138,15
20 zaldi fiskaletik gorakoak	134,86	168,84
b) Autobusak.		
21 plaza baino gutxiagokoak	83,30	104,29
21etik 50 plazara bitartekoak	118,64	148,54
50 plaza baino gehiagokoak	148,30	185,67
c) Kamioiak.		
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	42,28	52,93
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	83,30	104,29
2.999tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	118,64	148,54
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	148,30	185,67
d) Traktoreak.		
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	17,67	22,12
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	27,77	34,77
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	83,30	104,29
e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak		
1.000 baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	17,67	22,12
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	27,77	34,77
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	83,30	104,29
f) Bestelako ibilgailuak		
Zikomotoreak	4,51	5,65
125 cc-ra bitarteko motozikletak	4,51	5,65
125 cc-tik 250 cc-ra bitarteko motozikletak	7,72	9,67
250 cc-tik 500 cc-ra bitarteko motozikletak	15,45	19,34
500 cc-tik 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak	30,90	38,69
1.000 cc-tik gorako motozikletak	61,79	77,36



BI.- HOBARIAK:

.- Motorra elektrikoa duten ibilgailuek kuotaren %95 eko hobaria eta hibridoetan, kuotaren %50eko hobaria aplikatzea.

HIRU.- HOBARIEN PROZEDURA.

.- Txostenean jasotakoa onartzea.

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

HOBARIAK :

- .-Kuotaren %90 arte familia ugarien kasuan
- .-Kuotaren %50 arte babestutako bizitzen kasuan
- .-Kuotaren %50 arte, energi berriztagarrien probetxamenduagatik, eguzki panelak, biomasa, edo termikoaren kasuetan.
- .-Kuotaren %50 arte, bizitza hutsa izan eta Jaurlaritzari uztea
- .-Kuotaren %50 gehiago aplika daiteke etxe bizitza hutsen kasuetan.

KUOTAK:

Landalurra. Balioaren %0,3 tik % 1,1 arte. Orendaingo kasuan %0,714

Hirilurra. Balioaren %0,04tik %4 arte. Orendaingo kasuan %0,17000

HOBARIAK ESKATZEKO EGUTEGIA:

- .-Urtarrilaren 7tik hasita eta 30 arteko epea izango da.
- .-Udalak , martxoaren amaierarako eskaeraren inguruko ebazpena emango du .
- .-Udalak Foru Aldundiari jakinaraziko dio, behin betiko errolda egiteko.

HOBARIAK ESKATZEKO PROZEDURA:

Ondorengo dokumentuak aurkeztu behar dira:

- .-Eskaera orria
- .-Hobaria zuritzeko behar den dokumentazioa.

GAUR EGUNGO HOBARIAK:

- .-Familia ugarien kasuan %50 a
- .-Eguzkia energia dutenek %50 a

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

1.-Tipoaren igoera aplikatzea K.P.I arabera, eta ondorioz, Landalur zergaren tipoa 2018 urterako %0,726 eta Hirilur zergaren tipoa %0,1730.

2.-Hobariak: 2017 urteko berdinekin jarraitzea.

- .-Familia ugarien kasuan %50 a



.-Eguzkia energia dutenek %50 a

ERAIKUNTZA , INSTALAZIO ETA OBREN GAINeko ZERGA

HOBARIAK :

- .-Kuotaren %95ekoa obraren interesa: soziala, kulturala, historikoa ...
- .-Kuotaren %95ekoa autokontsumoari begira energi berriztagarriak ezartzen direnean
- .-Kuotaren %50ekoa azpiegituretako inbertsio pribatuetan
- .-Kuotaren %50ekoa babes ofizialeko bizitzak direnean
- .-Kuotaren %50a persona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun kasuetan

TIPOA.

Gehienezkoa %5 a.

Orendaingo kasuan, gaur egun dagoena:

- Eraikuntza eta Obra zerga:
Tipo orokorra: %4a
Hobariak ondoren aipatzen den kasuetan aplikatuko dira:

HIRIGUNEKO ESKAERETAN:

- Eraikuntza berria: aurrekontuaren %4a
- Berrikuntza lanetan:
 - Orendaingo udalerrian, eskaera aurkezten denetik kontatuta, 10 urte baino gehiago erroldatua badago eskatzailea, aurrekontuaren %2a ordainduko du.
 - Aldiz, eskatzailea Orendaingo udalerrian 10 urte baino gutxiago erroldatua badago, %4a ordainduko du.

LUR EZ URBANIZAGARRIKO ESKAERETAN

- Eraikuntza berria denean:
 - Eskatzaileak 10 urte baino gehiago erroldatua badago eskaera aurkezten duenetik kontatuta, aurrekontuaren %1a ordainduko du.
 - Eskatzaileak 10 urte baino gutxiago erroldatua badago aurrekontuaren %4a ordainduko du.
- Berrikuntza lanetan:
 - 10 urte erroldatua egotearen baldintza betetzen dutenek, aurrekontuaren %1a ordainduko du.
 - 10 urte baino gutxiago dituenak aurrekontuaren %2a ordainduko du.

Eraikuntza berria esaten denean, lehen ezer ez dagoen lekuan eraikitzea esan nahi du.



Berrikuntza lana esaten denean, baldintza hauek bete behar dira:

- Lehen dagoen eraikinean berrikuntza egitea. Hau da, handitzea, altxatzea, zabaltzea, edo zoru gehiago okupatzea berrikuntza ez da izango berria egitea baizik.

Lehenengo eraikuntzan, lehen zegoen bezala erabilera berdina izatea, hau da familia bateko bizitza izaten jarraitzea. Eraikuntzan bizitza bat baino gehiago egitea edo erabilera aldatzea berrikuntza ordeztu eraikuntza berria kontsideratuko da.

Erroldatua egotea ez da arrazoia hobaria aplikatzeko, baina kontutan hartu behar da, zerga hau ez dela obligaziozkoa, borondatezkoa baizik.

HOBARIAK ESKATZEKO PROZEDURA:

Ondorengo dokumentuak aurkeztu behar dira:

.-Eskaera orria

.-Hobaria zurtzeko behar den dokumentazioa, baimena eskatzearekin batera.

Mahaikideek **ERABAKI DUTE:**

Tipo orokorra, guztientzako %2,5 ekoa izatea.

TASAK

Gaur egun daudenak aztertu dira, eta

1. Hilerriko Zerbitzua

Gorpu dagoenean, hobitik ateratzea	70,00 €
Errautsak direnean, hobitik ateratzea.....	10,00 €
Gorpua denean, hobian sartzea.....	40,00 €
Errautsa denengan, hobian sartzea	10,00 €

Nitxoaren kontzesioa 10 urterako300,51 €

ERABAKI DA :

1.-Nitxoaren kontzesioa 10 urterako 300,51 € mantendu.

2.-Eta zerbitzua eskaintzeko, gaur egun Baliarrain, Ikaztegieta eta Adunak zerbitzua jasotzen duen enpresakin hitzegin, akordio bera sinatu eta beraien prezioa tasa gisa ezarri.

2. Hondakinen bilketa

- Zerbitzu ez domestikoa

Tabernak	112€/urtean
Elkartek	112€/urtean



- Zerbitzu domestikoa:

Norberak kudeatua	65€/urtean
Auzo Konpostagailuan	81,25€/ urtean
Auzo konpostagailuaren kudeatzaile izendatzen denak	65€/urtean

2017 URTEKO GASTUAREN AURREIKUSPENA4400,00€
2017 URTEKO ZERBITZUAREN TASAGATIK JASOTZEKO AURREIKUSPENA... 7538,12€

ERABAKI DA:

2018 URTERAKO, 2017 URTEKO BERDINA IZATEA

4.-2018 URTERAKO UDALAK AURREIKUSITAKO DIRU LAGUNTZEN ARAUDIA ONARTZEA.

Alkateak, 2018 urterako eta aurrekontuan kontutan hartzeko ondorengo ordenatza mahairatu du, onarpena eman ahal izateko.

DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN UDAL-ORDENANTZA

Orendaingo Udaleko aurrekontuetan, dagokien gastuen kredituetan aurreikusita daude zenbait jarduera eta sustapenerako ematen diren diru-laguntzetarako partidak.

Udal-ordenantza honen eta bere eranskinen bidez lortu nahi dena diru-laguntzak arautzea da, aurtan eta ondorengo urteetan.

Diru-laguntza guztiak ordenantza bakar baten bidez arautzeko arrazoia hau da: Laguntza hori jasotzen dutenek erreferentzia bakarra izatea eta espediente guztiak bideratzeko administrazio-kudeaketa erraztea.

Horiek horrela,

HAUXE XEDATU DA

1. artikulua. Diru-laguntza motak.

Onartzen dira departamentu bakoitzak kudeatuko dituen programen kontura emango diren diru-laguntzak arautuko dituzten oinarriak onartzen dira. Oinarri hauek eranskin moduan doaz, jarraian agertzen den zerrendaren arabera:

- 1. Energia berdea kontratatzeagatik laguntzak emateko oinarriak. (I. eranskina).**
- 2. Garraio publikoa erabiltzeagatik arautzen dituzten oinarriak. (II. eranskina).**
- 3. Herriko produktuek kontsumitzeagatik diru-laguntzak emateko oinarriak (III. eranskina).**
- 4. Ur kontsumo jasangarria egiteagatik diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak (IV. eranskina).**
- 5. Auzolana egiteagatik diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak (V. eranskina).**

2. artikulua. Deialdia.

Diru-laguntza horiek emateko deialdi publikoa egingo da urtero, eta bertan finkatuko da udal-aurrekontuan baimendutako gastua.



3. artikulua. Onuradunak.

Diru-laguntzen onuradun izango dira diru publikoa jasoko duten pertsona fisiko edo juridikoak, diru-laguntza horiei lotutako jarduerak egingo dituztenak edo diru-laguntza jaso izana legitimatzen duen egoeraren batean daudenak.

Onuradun izateko, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutako baldintzak bete beharko dira, bereziki, zerga-betebeharrak egunean izatea udalarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

4. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

Laguntza horiek jasotzen dituztenek diru-laguntzen prozeduran ezarritako betebeharrak izango dituzte, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan izatera orokorrean xedatutakoez gain.

5. artikulua. Agiriak aurkeztea.

1. Ordenantza honetan araututako laguntzak eskatzeko dokumentazioa eta argibideak Orendaingo udaletxeko bulego orokorrean jaso ahal izango dira. Jarraian doa kasu guztietan aurkeztu behar den dokumentazioa:

- a) Araututako diru-laguntza eskabidea behar bezala beteta.
- b) 3. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen direla adierazten duen deklarazioa behar bezala beteta .
- c) Nortasunaren egiaztagiria.
- d) Banketxe edo aurrezki kutxak sinatutako agiria, kontu korrontearen titularra bera dela egiaztatzen duena.
- e) Banketxe edo aurrezki kutxak emandako agiria, kasuan kasuko gastua egin dela egiaztatzen duena.
- f) Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duen agiria.

2. Hauetaz gain, eranskin moduan doazen oinarrietan zehaztuta datoz programa bakoitzaren kontura emango diren diru-laguntzak eskatzeko aurkeztu behar diren gainerako dokumentuak.

3. Eskatutako agiri batzuk deialdia egin duen administrazioko organoetakoren baten esku baleude, eskatzaileak Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 35 artikuluko f) atalak diotenaren arabera joka dezake, beti ere noiz eta zein organotan aurkeztu ziren edota jaso ziren zehaztuta, baldin eta bere prozedura amaitu zenetik bost urte igaro ez badira.

4. Dokumentazioa eskuratzea ezinezkoa balitz, órgano eskudunak dokumentazio hori aurkeztea eskatu ahal izango du, edo bestela, dokumentuan ezartzen diren baldintza horiek beste bide batzuk erabiliz egiaztatzea eskatu ahal izango du, ebazpen proposamena egin aurretik.

5. Eskaerak Orendaingo udaletxeko bulego orokorrean aurkeztuko dira.

6. Ikusiko balitz aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo oinarri hauetan exijitutakoak betetzen ez direla, hamar eguneko epearen barruan akats horiek zuzentzea edo



beharrezko agiriak aurkeztea eskatuko zaio interesatuari, horrela egin ezean, eskaera hori baztertu egingo dela ohartaraziz.

7. Dena dela, jarduera horri buruzko dokumentazioaz gain, udalak horren balorazioa egiteko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango die eskaera egin duten pertsona fisikoei.

6. artikulua. Deialdiak.

Programa bakoitzerako diru-laguntza eskaerak aurkezteko epeak urteko deialdian zehaztuko dira.

7. artikulua. Ebazpenak.

1. Diru-laguntza eskaerak dagokion departamentuak aztertu eta ebaluatuko ditu eta bere proposamena egingo dio organo eskudunari, ebazpena eman dezan.

2. Departamentu eta programa bakoitzean finkatutako irizpideen arabera emango dira diru-laguntzak.

3. Ebazpena baiezkoa izanez gero, bertan adieraziko dira laguntza hori jasoko dutenen izenak eta bakoitzari dagokion diru-laguntzaren kopurua. Guztiei emango zaie ebazpenaren berri eta esleipenen laburpena iragarki ohoan argitaratuko da.

8. artikulua. Jakinarazpenak.

1. Ordenantza honekin batera doazen eranskinetan aipatzen diren diru-laguntzak emateko prozedura dela eta, gerta litezkeen presuntziozko egintzek ezetsizat emango lukete, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44 artikulua xedatutakoaren arabera.

2. Gehienez ere, sei hilabeteko epean jakinaraziko da ebazpena.

3. Dena dela, ebazteko eta jakinarazteko gehienezko epea eten egingo da, aipatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42.5 artikuluan jasotako egoeretakoren bat gertatzen bada.

9. artikulua. Diru-laguntzen kopuruak.

Ordenantza honen bidez araututako diru-laguntzen kopuruek inolaz ere ezin izango dute gaintu egindako gastua.

10. artikulua. Ordainketak.

Oro har, eta dagokion eranskinetan besterik ezarri ezean, Ordenantza honen bidez arautzen diren diru-laguntzak, beharrezko administrazio tramiteak egin ondoren, dagokion eranskinetan adierazten den eran ordainduko dira.

11. artikulua. Diru-laguntzak berrikustea.

1. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan gerta litekeen gora-behera orok diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango du.

2. Jarraian aipatzen diren kasuetan diru-laguntza berrikusi edo deuseztatu ahal izango da:

a) Beharrezko baldintzak bete gabe diru-laguntza eskuratzea.

b) Diru-laguntzaren helburua ez betetzea.



12. artikulua. Argibideak.

Ordenantza honen bidez onartutako oinarriak ulertzerakoan zalantzarik sortuko balitz, Orendaingo Udaleko dagokion departamentuak argituko luke.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra.

Ordenantza hau indarrean jarriko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost(15) eguneko epean.

Hortik aurrera, indargabetu egingo dira ordenantza honen edukiarekin kontrajartzen diren gainerako xedapen guztiak.

I. ERANSKINA

Energia berdea kontratatzeagatik laguntzak emateko oinarriak.

1. Xedea.

Oinarri hauen xedea da, herriko familiak, bere baserri edo etxe bizitzetan kontsumitzen duen energia, jatorri berriztagarria (berdea) kontratatua eginga izateagatik laguntza ematea da.

2. Onuradunak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute ondorengo baldintzak betetzen dituzten familiek:

- Jabetzak dituen bizitza eta baserrietan energi berdea kontratatua izatea.
- Kontratu hori, gutxienez, azken 12 hilabetetan kontratatua izan behar du. Epe laburragoa izateak ez du laguntzaren eskubidea ematen.

3. Eskara eta dokumentazioa.

a) Diru-laguntzak emateko Udal Ordenantzaren 5 artikuluan xedatzen direnak eta kasu honetan, energiaren kontratazio erreziboak, azken urte betekoak aurkeztea.

4. Eskarak eta dokumentuak aurkezteko epea.

Eskarak eta dokumentuak aurkezteko epeak urteko deialdian zehaztuko dira.

5. Onartuko ez direnak.

- Eskara epez kanpo aurkeztea.
- Eranskin honen 2. puntuan exijitutakoa ez betetzea.

6. Ebaluaketa eta onarpena.

Eskarak dagokion Departamentuak aztertuko ditu eta erabakitzeke proposamena egingo du.

7. Diru-laguntzen kopurua eta ordainketa.

Dagokion organoak diru-laguntzak ematea erabakitzen duenean, gehienez lagunduko den zenbatekoa 20,00 €/ deialdiko eta bizitzako izango da. Laguntza honek 4 urterako iraungo du herritar guztientzako

II. ERANSKINA

Garraio publikoa erabiltzeagatik arautzen dituzten oinarriak.

1. Xedea.

Oinarri hauen xedea da Orendaingo Udalak garraio publikoa sustatzeko udalak emango dituen diru-laguntzak arautzea.

2. Onuradunak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Orendaingo herritarrek, adin nagusia dutenak eta eskolako garraiotik kanpo garraio arrunta erabiltzen dutenak, eta hilean gutxienez 10 bidai joan etorriak, garraio publikoan egiten dituztenak, eta hau zuritzen dutenak.

Diru-laguntza horiek eskuratzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskatzaileek:

- Eskatzailea Orendainen erroldatuta egotea.



b) Garraio publikoaren erabilera ziurtatzea, horretarako behar den zuriketa agiria , hilean hilekoa aurkeztuaz.

3. Eskaera eta dokumentazioa.

Interesatuak dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- a) Diru-laguntzak emateko Udal Ordenantzaren 5. artikuluan eskatzen den dokumentazio orokorra.
- b) Garraio publikoaren erabilera ziurtatzen duen agiria : mugi txartelaren tikeak edo egiaztagiriak .

4. Eskaerak eta dokumentuak aurkezteko epea.

Eskaerak eta dokumentuak aurkezteko epeak urteko deialdian zehaztuko dira.

5. Onartuko ez direnak.

- a) Eskaera epez kanpo aurkeztea.
- b) Eranskin honen 2. puntuan exijitutakoa ez betetzea.

6. Ebaluaketa eta onarpena.

Eskaerak Udalak aztertuko ditu eta erabakitzeko proposamena egingo du.

7. Diru-laguntzen kopurua eta ordainketa.

Dagokion organoak diru-laguntzak ematea erabakitzen duenean, ordainketa honela egingo da:
.-Gehienez urteko 20 euro herritar bakoitzeko .

III. ERANSKINA

Herriko produktuek kontsumitzeagatik diru-laguntzak emateko oinarriak.

1. Xedea.

Oinarri hauen xedea da Orendaingo Udalak bertako produktuek kontsumitzeagatik diru-laguntzak arautzea.

2. Onuradunak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute herrian erroldatua daudenak eta Orendainen ekoizten diren produktuak kontsumitzen dituztenak .Laguntza hau Udalak hornitzaileekin antolatuko du txartek batzuen bidez .

Eskatzaileak bete beharko dituzte baldintzak :

- a) Eskatzailea Orendainen erroldatuta egotea.
- b) Urtean zehar ekoizleen produktu ezberdinen bakoitzetik 10 ale erosten direnean beste bat jasoko du erosleak , doan . Horretarako udalean abonatu tiketa eskuratuko dute herritarrak, produktu ezberdin bakoitzeko abonatu tiketa bat . Ekoizleak tiketak jasoko dituzte eta udalarekin zurituko dute urte amaieran emandako produktuei dagokien faktura .
- c) Ordenantza Orokorreko 3. artikuluan ezarritakoak betetzea.

3. Eskaera eta dokumentazioa.

Interesatuak dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- a) Diru-laguntzak emateko Udal Ordenantzaren 5. Artikuluan eskatzen den dokumentazio orokorra.
- b) Produktuen abonatu tiketak Udalean jasoko dira. Herriko ekoizleak luzatutako agiriak aurketzu behar dira , 2 atalean esaten den moduan .1



4. Eskaerak eta dokumentuak aurkezteko epea.

Eskaerak eta dokumentuak aurkezteko epeak urteko deialdian zehaztuko dira.

5. Onartuko ez direnak.

- a) Eskaera epez kanpo aurkeztea.
- b) Eranskin honen 2. puntuaren exijitutakoa ez betetzea.

6. Ebaluaketa eta onarpena.

Eskaerak udalean aztertuko dira eta baloratuko dute.

7. Diru-laguntzen kopurua eta ordainketa.

Dagokion organoak diru-laguntzak ematea erabakitzen duenean, udalerrian dauden ekoizleek indartzeko eta sustatzeko. Tiketa bidez arautuko da eta bederatzi produktu berdin erosten direnean, produktu berdina dohain izango du. Hamargarren produktua eman dela hornitzaileak udalari faktura bidez zurituko dio, norentzako izan den adieraziaz eta horretarako emango den tiketa seilatu ondoren.

Orendaingo Udalak bere urteko aurrekontuetan jasoko du ekimen hauek sustatzeko diru-laguntzetarako partida. Aurrekontuko partida horretan ez badago eskaera guztiei erantzuteko adinako kopururik, jasotzekoak diren diru-laguntza kopuruak dagokien proportzioan jaitziko dira.

IV. ERANSKINA

Ur kontsumo jasagarria egiteagatik diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak .

1. Xedea.

Oinarri hauen xedea, urtean zehar ur kontsumo jasagarria egiten duten familiei keinu bat egitea eta diru-laguntzak arautzea da.

2. Onuradunak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Orendaingo eguneroko bizitza egiten duten baserri eta etxeetako jabeek.

Eskatzaileak bete beharko dituzten baldintzak:

- a) Eskatzailea Orendainen erroldatuta egotea azkeneko 4 urteetan.
- b) Berarentzako eta bere sendiarentzako eguneroko bizi lekua izatea .
- f) Ordenantza Orokorreko 3. artikuluan ezarritakoak betetzea.

3. Eskaera eta dokumentazioa.

Interesatuak dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- a) Diru-laguntzak emateko Udal Ordenantzaren 5. Artikuluan eskatzen den dokumentazio orokorra.
- b) Urteko osoko ur kontsumoaren erreziiboak .

4. Eskaerak eta dokumentuak aurkezteko epea.

Eskaerak eta dokumentuak aurkezteko epeak urteko deialdian zehaztuko dira.

5. Onartuko ez direnak.

- a) Eskaera epez kanpo aurkeztea.
- b) Eranskin honen 2. puntuaren exijitutakoa ez betetzea.

6. Ebaluaketa eta onarpena.

Eskaerak Udalak aztertuko ditu eta erabakitzeko proposamena egingo du.

7. Diru-laguntzen kopurua eta ordainketa.

Gehienezko diru laguntza 20 eurotakoa izango da urteko eta bizitzako.

Orendaingo Udalak bere urteko aurrekontuetan jasoko du dirulaguntzetarako partida. Aurrekontuko partida horretan ez badago eskaera guztiei erantzuteko adinako kopururik, jasotzekoak



diru-laguntza kopuruak dagokien proportzioan jaitsiko dira.

V. ERANSKINA

Auzolana egiteagatik diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak

1. Xedea.

Oinarri hauen xedea, herritarren artean eta Udalak antolatutako auzolana deritzan lan komunitarioetan parte hartzeagatik udalak emango dituen pizgarriak arautzea da.

2. Onuradunak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute herritar guztiak, adinez nagusiak

a) Parte hartzailea Orendainen erroldatuta egotea gutxienez urtebete.

b) Auzolan dealdia parte hartu duela zuritzea

c) Ordenantza Orokorreko 3. artikuluan ezarritakoak betetzea.

3. Diru-laguntzen kopurua eta ordainketa.

Parte hartze bakoitzari 10 euroko balioa duen bertako ekoizleen produktuen osatutako oartxo bat oparituko zaio auzolanean parte hartu izanagatik .

Diru laguntzen aplikazioa: 2018 urtean hasiko da laguntzak aplikatzen eta 2018 urteko aurrekontuan aurreikuspena egin beharko da.

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

1.-Alkateak proposatutako diru laguntzen agintarauari onarpena ematea.

2.-Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea hilabete epean.

3.-Argitaratu ondoren alegaziorik tarteratu ezean, behin betikotzat onartuta ematea, erabaki berririk hartu beharrik gabe.

4.-Eta laguntza hauek, orain arte dauden beste laguntzen batera jasotzeko LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA prestatu eta aurrekontuarekin batera onarpena ematea.

5.-HERRIKO JAIEN LIKIDAZIOA AURKEZTEA.

Herri jaien antolatzailea den zinegotziak , jaien likidazioa aurkeztu du, laburtuaz, ondoren esaten den bezala:

GASTUAK8.695,85€

SARRERAK10.283,00 €

Udalak9.000,00

Sagardo dastaketa..... 112,00

Kostilla jana 1.171,00

ALDEA1.587,15€ eta zenbateko hau udaleko kontu korrante sartuko da.
Laguntzaileak, udaleko kontuan sartu dituzte1060,00

Beraz ,jaien kostu erreala6.352,85 €-



Mahaikideek jakinaren gainean geratu dira.

6.-NATUR TXOKOA ORENDAINEN ONARTU ETA BERE FINANTZIAZIOAREN INGURUAN DAGOKIONA ERABAKI.

Orendaino udalak aspalditik ludoteka zerbitzua antolatzen jarraitu izan du, bere helburua herriko haurrak elkarrekin egotea izan delako ea horrela jarraitzeko.

Halere, 2017-2018 urterako aldaketa bat egitea aurreikusi da eta ikasturte honetan NATUR TXOKOA jartzea erabaki da, hainbat gurasoek horrela eskatu dutelako.

Proposamenaren arrazoiak izan dira:

.-Naturarekin harremana izateko espazioa izatea landuko da, honek emango bait du kanpo espazioarekin jolasteko bermea.

.- Bi begirale (23 haur). Metodologia hau eskaintzeko bigarren pertsona bat beharrezkotzat ikusten da.

- Bakoitzaren KITa. Kanpo espazioan denbora gehiago pasatzea denez helburua, horretarako babes nagusia jantzietan eta materialetan eramango dute. Horregatik, bakoitzak KIT hau eduki beharko du eta ludotekako espazioan bertan edukiko ditugu gordeta.

- Motxila txiki bat
- Katiuskak / mendiko botak
- Txamarra / Xira / Txubaskeroa
- Kantinplora
- Tupper berrerabilgarria (meriendarentzako)

- Barneko espaziora: Ganbarako espazioa egokitzen joango gara urte honetan, behar ez diren material eta jolasak ateraz eta horiekin zer egin erabakiz, material berriak sartu, espazioaren diseinua landu. Esperimentatzeko materialak ahalbidetuko ditugu; area, egurrak... materiala ahalik eta naturalena izango da hemen ere. Prozesu hau hurrekin batera egingo da, eta kasu puntualetan gurasoen laguntza ere eskatuko da.

2017-2018 ikasturterako NATUR TXOKOA DERITZAN zerbitzuaren balioa

Aurreko ikasturteetan ohikoa izan da ludoteka zerbitzua eskaintzea, astean bi egunetan ikasturte denboraldian, haurrek herrian bertan elkartzeko aukera izateko. Horretarako udalak, begirale bat kontratatzen du, astean sei orduko dedikazioarekin eta bi egunetan banatzeko.

Langilearen kostua 2.598,75 euro dira (1925 soldata eta 673,75 € gizarte segurantzaz).

2017-2018 ikasturtean bi begirale behar dira eta honen kostua bikoiztu egiten da.

Bestetik , aseguru etxearen kostua zenbatekoa den jakin behar da.



Informazio hau eman ondoren, ERABAKI DA:

1.-Guztira 23 ikasle dira ludotekara joango direnak. Eta ludotekarako partaide direnak gastua finantziatzeko ekarpena egitea.

2.-Ekarpenak egiteko modua, familiako lehen ikasleagatik, 10 euro hileko, eta beste ikasle bakoitzeko famili berdinekogatik bost euro bakoitzagatik.

7.-EUDELLEN PROPOSAMENA, 2017 URTERAKO UDAL LANGILEEI %1EKO IGOERA APLIKATZEA, HALA BADAGOKIO.

Alkateak jakinarazten du, Eudelen gomendioa jaso duela, 2017 ekitaldian Udaleko langileengan ordainsarrietan igoera aplikatzeko.

Eudelek luzatu duen gomendioak honela dio:

LANGILEEN ORDAINSARIEI BURUZKO GOMENDIOA 2017KO EKITALDIRAKO

2017ko ekainaren 28an, **2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legea** argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Langileen gastuei buruzkoa den lege horren Hirugarren Tituluak honako hau xedatzen du **18. artikuluan**. Bi: ***“2017. urtean, sektore publikoko langileen ordainsarien igoera globala ez da inola ere izango 2016ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak baino %1 handiagoa, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinakotasunari begira”***.

2017ko uztailaren 13an izandako bileran, EUDELen Batzorde Eragileak hori aztertu du, eta komenigarritzat jo du EAEko udaletan artikulua horren interpretazioa eta ezarpena erraztea eta bultzatzea, langile publikoentzat ahalik eta onuragarrien izan dadin. Gainera, hori lagungarria izan daiteke UDALHITZ 2017 Akordio Arautzailearen negoziazioari begira. Horiek horrela, udalei, mankomunitateei eta gainerako erakunde publikoei GOMENDATZEN DIE neurri hau onar dezaten:

%1EKO ORDAINSARI IGOERA 2017KO EKITALDIAN

2017ko ekitaldian, sektore publikoko langileen ordainsarietako %1eko igoera izatea, 2016ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarietarekin alderatuta, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinakotasunari begira, 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legeak 18.2 artikuluan jasotako aukerarekin bat etorrira.

Neurria ezartzean, dagozkion doikuntzak egin beharko dira, ordainsarien igoerak urte honetako urtariletik aurrera izan ditzan ondorioak.

Mahaikideek aho batez ERABAKI DUTE:

1. 2017 urterako, udal langileei urtariletik hasita, beren ordainsarrietan %1eko igoera aplikatzea, Eudelen gomendioa jarraituz.



8.- GALDERAK ETA ESKAERAK.

Bat.- Erromeri jai eguna dela eta geratu zen zorra ordaintzeko proposamena mahairatu da. Datuen berri aurkezteko geratu da.

Bi.- Gurasoek 2017-2018 ikasturterako ipuin kontaketa saioak antolatu dituzte, eta ekitaldiaren finantziario izango den galdetzen da. Alkateak bere aldetik, egitasmoa %100ean laguntzea proposatu du. Mahaikideek, alkatearen proposamenarekin bat egin dute eta adostasuna agertu dute.

Eta besterik ezean, bilkura amaitutzat eman da, 21:10 etan

Alkateak

Idazkariak